

GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN EMAKUMEENTZAT GIZARTE ARRETA-INTEGRALA

Gure proiektu hau, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzat gizarte arreta-integrala bermatzen duen enpresa bat sortzeko gauzatu dugu. Gaur egun, genero-indarkeriaren biktima direnek, ez dute arreta-integral bateratu bat jasotzeko aukerarik, eta horregatik, indarkeria egoerari aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideak jasotzea bermatu nahi dugu gure enpresari esker, birbiktimizazioa ekidin eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumei ahotsa eman eta beharrezko laguntza bermatzeko.